LEHENDAKARIAREN 14/2026 DEKRETUA, AZAROAREN 3KOA, LANKIDETZAREN ETA ELKARTASUNAREN ARLOKO LAGUNTZEI ETA DIRULAGUNTZEI APLIKATU BEHARREKO ARAU BEREZIEI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak Eusko Jaurlaritzak xedapen orokorrak egiteko jarraitu behar duen prozedura ezartzen du, edozein dela ere xedapen horien gaia, baldin eta ordenamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak jasotzen badituzte eta lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen badute.

Lege horren 12. artikuluaren lehenengo apartatuak ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura dagokion gaiaren arabera eskumena duen saileko titularraren agindu bidez hasiko dela, legearen 13. artikuluan aipatutako edukiarekin.

Bestalde, aipatutako 6/2022 Legearen 4. artikuluak administrazio publikoek legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean bete behar dituzten arau-kalitatearen edo erregulazio onaren printzipioak ezartzen ditu.

Dekretu honek Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4., 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoa betetzen du.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (abenduaren 29ko EHAA, 147. zk.) bere hirugarren xedapen gehigarrian finkatzen du Gobernuak lankidetza eta elkartasuneko laguntzen arau bereziak erregelamenduz onartuko dituela, lankidetza eta elkartasuneko zein

DECRETO 14/2026, DE 3 DE NOVIEMBRE, DEL LEHENDAKARI POR EL QUE SE INICIA EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO SOBRE LAS NORMAS ESPECIALES APLICABLES A LAS AYUDAS Y SUBVENCIONES DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece el procedimiento al que deberá sujetar su actuación el Gobierno Vasco para la elaboración de aquellas disposiciones de carácter general que, cualquiera que sea la materia sobre la que versen, contengan normas jurídicas que innoven el ordenamiento jurídico y adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden.

El apartado primero del artículo 12 de dicha ley establece que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden de la persona titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen, con el contenido mencionado en su artículo 13.

Por su parte, el artículo 4 de la mencionada Ley 6/2022 establece los principios de calidad normativa o de buena regulación bajo los que tienen que actuar las administraciones públicas en el ejercicio de la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria.

El presente Decreto da cumplimiento a lo dispuesto por los artículos 4, 12 y 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

La Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones (B.O.P.V. n.º 147, de 29 de diciembre), establece en su disposición adicional tercera, que el Gobierno aprobará por vía reglamentaria, a propuesta conjunta de los departamentos competentes en las materias de cooperación y solidaridad y de

ogasuneko eskumenak dituzten sailek batera proposatuta, izapideak arindu eta sinplifikatzeko eta, azken batean, sustatzen diren jardueren eraginkortasuna areagotzeko.

hacienda, las normas especiales reguladoras de las ayudas y subvenciones de cooperación y solidaridad, a fin de agilizar y simplificar los trámites con el objetivo de aumentar la eficiencia de las actuaciones impulsadas.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta sail horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 4.1.i) artikuluak Lehendakaritzari esleitzen dio garapenerako lankidetzaren arloa.

El artículo 4.1.i) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asigna el área de cooperación para el desarrollo a Lehendakaritza - Presidencia de Gobierno.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluak xedatzen duenez, lege bidez hala ezartzen denean edo bi sailburuk edo gehiagok gai jakin batean zuzeneko eskumen-esleipena dutenean, agindua bateratua izango da.

El artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, dispone que cuando así se establezca mediante ley, o cuando se trate de materias en las que disponen de atribución competencial directa dos o más consejeros o consejeras, la orden será conjunta.

Kasu honetan, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, prozeduraren hasiera Lehendakariaren dekretu bidez agintzen da, Lehendakaria Lehendakaritzaren titularra den aldetik, bai eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren agindu bidez ere.

En el presente caso, de conformidad con lo establecido en el artículo 60 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, el inicio del procedimiento se ordena mediante Decreto del Lehendakari, titular de la Presidencia, y mediante orden del consejero de Hacienda y Finanzas.

Arauaren xedea eta helburua.

Objeto y finalidad de la norma.

Proiektatutako arauaren xedea da lankidetzaren eta elkartasunaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten arau bereziak erregelamendu bidez garatzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian jasotako agindua betez (2023ko abenduaren 29ko EHAA, 147. zk.).

La norma proyectada tiene por objeto desarrollar reglamentariamente las normas especiales reguladoras de las ayudas y subvenciones de cooperación y solidaridad en atención al mandato contenido en la disposición adicional tercera de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones (B.O.P.V. n.º 147, de 29 de diciembre).

Erregulazio horiek aplikatu beharreko dirulaguntzen arloko araudira egokituko dira, salbu eta, laguntzen izaerarekin edo hartzaileekin bateraezinak direlako, besteak beste, emateko araubideari,

Dichas regulaciones se adecuarán a la normativa subvencional aplicable, salvo que deban exceptuarse aspectos del régimen de concesión, abono, gastos subvencionables, plazos de ejecución y

ordainketari, diruz lagundu daitezkeen gastuei, gauzatzeko eta justifikatzeko epeei, kontrolari, itzulketei edo zehapenei buruzko alderdiak salbuetsi behar direnean.

justificación, control, reintegros o sanciones, entre otros, en la medida que resulten incompatibles con la naturaleza o los destinatarios de éstas.

Halaber, dirulaguntzen kudeaketan bete behar diren printzipio orokorrak jasotzen dira: publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia. Kudeaketaren gardentasunak, eraginkortasunak eta efizientziak justifikatzen dituzte, besteak beste, prozeduren hainbat unetan publikotasuna emateko betebeharrak; era berean, kudeaketa-izapideak ezartzen dira, prozedura arin eta erraza sustatzeko.

Asimismo, se recogen los principios generales que deben presidir la gestión de las subvenciones recogiendo los de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia y eficiencia. La transparencia, eficacia y eficiencia en la gestión fundamentan, entre otras, las obligaciones de publicidad en distintos momentos de los procedimientos; asimismo se fijan los trámites de la gestión, tratando de propiciar un procedimiento ágil y sencillo.

2024ko otsailaren 29an argitaratu zen Lankidetzaren eta Elkartasunaren otsailaren 19ko 3/2024 Legea (2024ko otsailaren 29ko EHAA, 44. zk.). Lege horren xedapen gehigarri bakarrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lankidetzaren eta elkartasunaren arloko laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoak, araubide berezi hori erregelamendu bidez garatzeko beharra berresten du, 20/2023 Legeak egin zuen bezala.

Con fecha de 29 de febrero de 2024, se publicó la Ley 3/2024, de 19 de febrero, de Cooperación y Solidaridad (B.O.P.V. n.º 44, de 29 de febrero) que en su disposición adicional única, sobre ayudas y subvenciones en materia de cooperación y solidaridad de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, reitera la necesidad de desarrollo reglamentario de dicho régimen especial en el mismo sentido que lo hizo la Ley 20/2023.

Horrela, erregelamendu bidezko garapen honen bitartez, izapideak murrizteari eta sinplifikatzeari, administrazio-prozesuak egokitzeari, beharrezkoak ez diren izapideak kentzeari eta abenduaren 21eko 20/2023 Legea garatzeari heltzen zaie, sustapen-jarduera lankidetzaren eta elkartasunaren egungo testuingurura egokitzeko.

De este modo, mediante el presente desarrollo reglamentario se aborda la reducción y simplificación de trámites, la adaptación de los procesos administrativos, la eliminación de trámites innecesarios y el desarrollo de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, para adaptar la actividad de fomento al actual contexto de la cooperación y solidaridad.

Era berean, garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretua eman da (2025eko martxoaren 12ko BOE, 61. zk.). Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarriak arautzeko nazioarteko harremanetan Estatuak soilik daukan eskumena da Errege-dekretu horren

Asimismo, se ha dictado el Real Decreto 188/2025, de 11 de marzo, por el que se regulan las subvenciones y ayudas en el ámbito de la cooperación para el desarrollo sostenible y la solidaridad global (B.O.E. n.º 61, de 12 de marzo de 2025). El contenido de este real decreto está sustentado en la competencia exclusiva del Estado en materia de relaciones internacionales y para regular las bases del régimen jurídico de las

oinarria. Garapen jasangarrirako lankidetzako dirulaguntza eta laguntzen erregimena horren barruan dago, garapen jasangarrirako lankidetzako jarduerak eraginkorragoak izan daitezen.

Administraciones Públicas y del procedimiento administrativo común, lo que incluye el régimen de subvenciones y ayudas en materia de cooperación para el desarrollo sostenible, al objeto de dotar de una mayor eficacia a las actuaciones de cooperación para el desarrollo sostenible.

Aipatu diren Estatuaren eskumenak ikusita, oinarri-oinarrian aplikagarri dira 188/2025 Errege Dekretuaren arau hauek: atariko tituluan, 1. artikulua, 3. artikulua —2. apartatua izan ezik— eta 5. eta 6. artikuluak. I. tituluan, I. kapitulua 11. artikulua izan ezik; II. kapituluko 13., 14. eta 16. artikuluak; III. kapituluko 21., 22. eta 24. artikuluak, eta V. kapitulua. III. tituluan, I. kapitulua eta III. kapituluko 46., 47., 48. eta 49. artikuluak. Bestalde, aplikazio-eremuari buruzko azken xedapenetatik hirugarrenean xedatzen da errege-dekretu horretako arauak gainerako administrazio publikoei aplikagarri zaizkiela, baita haiei lotuta dauden edo horien mende dauden entitateei ere, horien ordezko edo oinarrizko izaeraren arabera; 33.1.a) artikulua kenduta, non Gobernuaren kanpo-politikako jarduerak jorratzen diren, soil-soilik aplikatuko baitzaio Estatuko Administrazio Orokorraren arloan garapen jasangarrirako ematen diren lankidetzako dirulaguntza eta laguntzei. Horrenbestez, autonomia-erkidegoko dekretu horren xedapen gehigarri bakarrean finkatu den moduan, zuzenean aplikatzekoak diren oinarrizko artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu juridikoan txertatuko dira.

En observancia de las competencias estatales indicadas resultan de aplicación, con carácter básico, los siguientes preceptos del Real Decreto 188/2025: en el título preliminar, el artículo 1, el artículo 3, salvo su apartado 2, y los artículos 5 y 6. En el título I, el capítulo I salvo el artículo 11; los artículos 13, 14 y 16 del capítulo II; los artículos 21, 22 y 24 del capítulo III y el capítulo V. En el título III, el capítulo I y los artículos 46, 47, 48 y 49 del capítulo III. Por su parte, la disposición final tercera, que se refiere al ámbito de aplicación dispone que los preceptos de dicho real decreto son de aplicación al resto de administraciones públicas, así como a sus entidades vinculadas o dependientes, de acuerdo con su carácter supletorio o básico, a excepción del artículo 33.1.a) referido a actuaciones en materia de política exterior del Gobierno, que será de aplicación exclusiva a las subvenciones y ayudas de cooperación para el desarrollo sostenible concedidas en el ámbito de la Administración General del Estado. En consecuencia, tal y como establece la disposición adicional única de este decreto autonómico, se integran como articulado propio de aplicación directa en el ordenamiento jurídico de la comunidad autónoma de Euskadi el articulado básico que es de directa aplicación.

Abiapuntutzat hartuta lankidetzarako eta elkartasunerako otsailaren 19ko 3/2024 Legeko eta dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko arauak; txertaturik garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuan arautzen diren oinarrizko espezifikotasunak eta espezifikotasun gehigarriak; eta azterturik dirulaguntzak eman, exekutatu eta justifikatzeko prozeduretan identifikatu

Partiendo de los mandatos de la Ley 3/2024, de 19 de febrero, de Cooperación y Solidaridad, de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, e integrando las especificidades de carácter básico y supletorio reguladas en el Real Decreto 188/2025, de 11 de marzo, por el que se regulan las subvenciones y ayudas en el ámbito de la cooperación para el desarrollo sostenible y la solidaridad global y tras un análisis de la casuística y necesidades identificadas en los procedimientos de

diren kasuistika eta beharrak, lankidetzaren eta elkartasunaren arloan ematen diren laguntza eta dirulaguntzen erregulazio espezifikoa jaso da dekretu honetan, eta araudira, egungo testuingurura eta dirulaguntza zein laguntza horien entitate onuradunen askotariko ezaugarrietara egokitu dira. Halaber, prozedurak arindu eta desburokratizatu nahi izan dira, baita gardentasun zorrotza, eraginkortasuna eta kontuak ematea ere, garapenerako lankidetzako laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketan.

concesión, ejecución y justificación de subvenciones, este decreto recoge la regulación específica de las ayudas y subvenciones que se otorgan en el ámbito de la cooperación y solidaridad, adaptándolas a la normativa, al contexto actual y a las diversas características de las entidades beneficiarias de dichas subvenciones y ayudas, procurando la agilización y desburocratización de los procedimientos y una rigurosa transparencia, eficiencia y rendición de cuentas en la gestión de las ayudas y subvenciones de cooperación para el desarrollo.

Proiektatutako arauaren xedea da lankidetzaren eta elkartasunaren arloan ematen diren laguntzak eta dirulaguntzak berariaz arautzea, araudira, egungo testuingurura eta laguntza eta dirulaguntza horien erakunde onuradunen ezaugarri desberdinetara egokituz. Horretarako, prozedurak arintzea eta burokratizazioa murriztea bilatzen da, bai eta garapenerako lankidetzako laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketan gardentasun, efizientzia eta kontu-emate zorrotzak bermatzea ere.

El objeto de la norma proyectada es la regulación específica de las ayudas y subvenciones que se otorgan en el ámbito de la cooperación y solidaridad, adaptándolas a la normativa, al contexto actual y a las diversas características de las entidades beneficiarias de dichas subvenciones y ayudas, procurando la agilización y desburocratización de los procedimientos y una rigurosa transparencia, eficiencia y rendición de cuentas en la gestión de las ayudas y subvenciones de cooperación para el desarrollo.

Gainerako irtenbideak, erregelamenduarekin eta erregelamendurik gabe.

Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

1. Indarrean dagoen araudiarekin jarraitzea. Aukera hau ez da bideragarria, beharrezkoa baita dagoen araudia garatzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15ko 3/2024 Legean finkatutakoaren arabera.

1. Seguir con la normativa existente. Esta opción no resulta factible, al ser preceptivo desarrollar la regulación existente de acuerdo con la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, y la Ley 3/2024, de 15 de febrero, de Cooperación y Solidaridad.

2.- Garatzeko arau berria idaztea. Hau da aukerarik onena, aipatu diren legeetan garapenerako lankidetzako dirulaguntzen eta laguntzen harira txertatu den erregulazio berria betetzeko aukera ematen duelako.

2.- Abordar la redacción de una nueva norma de desarrollo. Esta es la mejor alternativa, pues permite dar cumplimiento a la nueva regulación introducida en materia de subvenciones y ayudas de cooperación para el desarrollo en las leyes antedichas.

Proposatutako erregulazioaren edukia.

Contenido de la regulación propuesta.

Dekretu-proiektuaren egitura Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenean xedatutakora egokituko da. Ebazpen horren bidez, lege-, dekretu-, agindu- eta ebazpen-proiektuak egiteko jarraibideak onartzen dituen erabakia argitaratzeko agintzen da.

El proyecto de decreto se ajustará en su estructura a lo dispuesto por la Resolución 78/2023, de 28 de julio, del director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y Resoluciones.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Viabilidad jurídica y material.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta sail horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 4. artikuluak Lehendakaritzari esleitzen dio garapenerako lankidetzaren arloko jardun politikoa.

El artículo 4 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asigna a Lehendakaritza el área de actuación política de cooperación para el desarrollo.

Bestalde, Lankidetzaren eta Elkartasunaren otsailaren 15eko 3/2024 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia lankidetzaren eta elkartasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako erakunde instituzionala da. Erakunde hori Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko lankidetza- eta elkartasun-politika planifikatzeaz, koordinatzeaz, kudeatzeaz, exekutatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen da.

Por su parte, conforme establece el artículo 9 de la Ley 3/2024, de 15 de febrero, de Cooperación y Solidaridad, eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad es un ente institucional adscrito al departamento de Gobierno Vasco competente en materia de cooperación y solidaridad. Dicho ente es el encargado de impulsar la planificación, coordinación, gestión, ejecución y evaluación de la política de cooperación y solidaridad del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Repercusiones en el ordenamiento jurídico.

Proiektatutako arauaren bidez, administrazio-mekanismo komunak egokitu eta malgutu nahi dira, laguntzak emateko araubideari, ordainketari, diruz lagundu daitezkeen gastuei, gauzatzeko epeei, justifikazioari, kontrolari, itzulketei edo zehapenei buruzko alderdietan, baldin eta hartzaileen izaerarekin edo ezaugarriekin bateraezinak badira. Azken helburua izapideak arintzea eta sinplifikatzea da, sustatutako jardueren efizientzia handitzeko.

La norma proyectada pretende adecuar y flexibilizar los mecanismos administrativos comunes en aquellos aspectos del régimen de concesión, abono, gastos subvencionables, plazos de ejecución, justificación, control, reintegros o sanciones que resulten incompatibles con la naturaleza o las características de los sujetos destinatarios, con el fin último de agilizar y simplificar los trámites para aumentar la eficiencia de las actuaciones impulsadas.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko barne-organoen hainbat araudiri eragiten die, eta araudi horiek espedientean jasoko diren justifikazio-memorian eta txosten juridikoan zehaztuko dira.

En este sentido, afecta a normativas de distintos órganos internos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se detallarán y concretan en la memoria justificativa e informe jurídico que constaran en el expediente.

Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

Incidencia económica y presupuestaria.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta bertan aztertuko dira etorkizuneko araua aplikatzearen ondoriozko kostua eta arau horren aplikazioak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina. Halaber, memoria horretan arauak beste administrazio batzuetan eta partikularrengan izango duen eraginaren azterketa jasoko da, bai eta ekonomian oro har izango duen eraginarena ere.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15.5 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, se elaborará la correspondiente memoria económica, que analizará el coste derivado de la aplicación de la futura norma y la incidencia que tendrá su aplicación en los Presupuestos Generales de la CAE. Asimismo, en dicha memoria se contemplará un análisis del impacto de la norma en otras Administraciones y en los particulares, así como en la economía en general.

Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Trámites e informes que se estiman procedentes.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera, prozedura hasteko dekretuan gaiaren arabera egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak adieraziko dira.

De acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, el Decreto de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia.

Lehen aipatutako memoria ekonomikoaz gain, espedientean honako hauek jaso beharko dira:

i) arauaren beharrari, egokitasunari eta helburuei buruzko justifikazio-memoria;

ii) generoaren araberako eraginari buruzko txostena, edo txosten hori egitetik salbuesteko arrazoiak; izan ere, aurretiazko balorazio baten arabera, salbuespen hori justifikatuta egongo litzateke Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehenengo jarraibidearen 2.1) puntuan ezarritakoarekin bat etorriz. Ebazpen horren bidez, Gobernu

Además de la ya mencionada memoria económica, en el expediente deberá constar:

i) una memoria justificativa sobre la necesidad, oportunidad y objetivos de la norma;

ii) un informe de impacto en función de género, o las razones que justifiquen la exención que, en una preliminar estimación se encontraría motivada, de acuerdo con lo establecido en la Directriz Primera 2.1) de la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno “por el que se

Kontseiluak «generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak» onartzeko hartutako erabakia argitaratzeko agintzen da.

aprueban las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres".

iii) proposamenak dakartzan administrazio-kargak eta -kostuak, eta enpresan duen eraginaren ebaluazioa (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua), Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.d) artikuluan ezarritakoa betetzeko.

iii) cargas y costes administrativos que conlleva la propuesta y una evaluación de impacto en la empresa (artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco), a efectos de cumplimentar lo establecido en el artículo 13.1.d), de la de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

iv) proiektatutako araudiak haurrengan eta nerabeengan izango duen eraginaren azterketari buruzko memoria, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

iv) una memoria de análisis de impacto de la normativa proyectada en la infancia y en la adolescencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15.3.h) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General

v) Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluak nahitaez eskatzen du arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egitea, artikulu horretan bertan jasotako gutxieneko edukiarekin (besteak beste, aurreko puntuetan aipatutako edukia barne).

v) El artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General exige, con carácter preceptivo, una memoria del análisis de impacto normativo, con el contenido mínimo recogido en el mismo artículo (que incluye, entre otras, el contenido mencionado en los puntos anteriores).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan (Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea) xedatutakoa betetzeari dagokionez, izapide hori Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan araututako hasiera-fasean txertatuta dagoela ulertuko da, kontuan hartuta herritarrekiko elkarreraginerako izapide bat dela, arau-testu juridiko jakin bat onartu aurretik egin beharrekoa.

En relación con la cobertura de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de ley y reglamentos), se entenderá que se encuentra integrada en la fase de iniciación que se regula en 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, teniendo en cuenta que se trata de un trámite de interacción con la ciudadanía que se debe realizar con un carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico normativo.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarriz beteko da izapidea. Informazio bera Legegunean jarriko da ikusgai, eta, ondoren, jasotako ekarpenak gehitu beharko zaizkio, banaka edo multzokatuta. Era berean, aldez aurreko kontsultaren izapide honetan argitaratutako informazioa gobernu irekiaren plataformara - Irekia - eramango da, herritarrek Administrazioaren jardueren berri izan dezaten eta beren iritziak eman ditzaten.

La cumplimentación del trámite se realizará mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La misma información se expondrá en Legegunea, a la que deberán añadirse posteriormente de modo individualizado o agrupado las aportaciones recibidas. Así mismo, la información publicada en este trámite de consulta previa se trasladará a la plataforma de gobierno abierto -Irekia- donde la ciudadanía podrá conocer las actuaciones de la Administración y formular sus opiniones.

Aldez aurretik onartzeko dekretua, arau-proiektuarekin batera, Legegunea lankidetza-espazioan argitaratuko da.

El Decreto de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, se hará público en el espacio colaborativo Legegunea.

Proiektua entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen mende jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, testua beste administrazio batzuen partaidetza- eta kontsulta-izapidearen mende jarriko da.

El proyecto será sometido al trámite de audiencia e información pública, de acuerdo con lo establecido en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. Asimismo, el texto será sometido al trámite de participación y consulta a otras Administraciones.

Honako txosten hauek eskatuko dira:

- Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren eta Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren txosten juridiko bana, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, arauak generoaren arabera izango duen eraginaren ebaluazioari buruzkoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20.6 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko

Se recabarán los siguientes informes:

- Sendos Informes jurídicos de la dirección de servicios del departamento de Hacienda y Finanzas y de la dirección de régimen jurídico de Lehendakaritza – Presidencia de Gobierno, conforme a lo establecido en el artículo 15.4 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y el artículo 42.1.b) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.
- Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, sobre la evaluación del impacto de la norma en función del género, de acuerdo con lo establecido en los artículos 20.6 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y 14.4 de la Ley 6/2022, de 30 de

Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2.l) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduran Euskararen Erabileraren Normalizazioaren Ikuspegia Txertatzeko Araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera ere. Hala eskatzen dute, halaber, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3.g) artikuluak eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.1 artikuluak, azken hori Xedapen Orokorrak Egiteko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren bidez aldatua.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetzako Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Kontseiluaren txostena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua arautzen duen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 2.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Era berean, egokitzat jotzen da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena eskatzea, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legeak esleitzen dizkion eskumenetan oinarrituta.

junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura y Política Lingüística, de acuerdo con lo establecido en el artículo 14.2.l) del Decreto 73/2021, de 23 de febrero por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como en virtud de lo determinado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general. Así lo exigen, también, el artículo 15.3.g) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, así como el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de normalización del uso del Euskera, modificado por la Disposición Final Primera de la Ley 6/2022, de 30 de junio, de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

- Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación Administrativa de la Viceconsejería de Administración Digital y Servicios Generales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, conforme a lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del citado departamento.
- Informe del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad, en base a lo dispuesto en el artículo 2.2 a) del Decreto 158/2008, de 16 de septiembre, por el que se regula el Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo.
- Se considera asimismo procedente solicitar Informe de la Autoridad Vasca de Protección de Datos, en base a las competencias que se le asignan en la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol ekonomiko-arauemaileari buruzko nahitaezko txostena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 22. artikuluan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta EAEren esparruan barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea gauzatzea garatzen duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

- Informe preceptivo de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, según lo establecido en artículo 22 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, el Capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la CAE.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1.c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

Gainera, Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Además, se elevará para su aprobación en Consejo de Gobierno y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Trámites ante la Unión Europea.

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egiteko beharrik.

No se aprecia la necesidad de realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

Idazketa-sistema.

Sistema de redacción.

Proiektua 2013ko maiatzaren 14ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak onartzen dira. Halaber, *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da*.

La redacción del proyecto deberá efectuarse conforme a lo previsto en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de Ley, Decreto Legislativo, Decreto u Orden y el artículo 14 de la *Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General*.

Aurrekoa betetzeko, baita Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko ere, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) egindako itzulpena erabiliko da, Euskal

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo anterior, así como de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, será el de traducción por el Servicio Oficial de

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen zeharkako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzea ezartzen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera.

Traductores (IZO), de conformidad con el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluari onar dezan bidali aurretik, proiektuaren artikuluen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, argitaratzeko bidaltzen den dokumentuak bi bertsioen zehaztasunaren eta baliokidetasunaren ziurtagiria izan beharko du, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emana, Xedapen Orokorrak Egiteko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Con anterioridad a la remisión del proyecto de Decreto al Consejo de Gobierno, para su aprobación, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de las versiones en euskera y castellano del texto articulado del proyecto, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de exactitud y equivalencia de ambas versiones, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública, tal y como dispone el artículo 27.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Lehenengoa: Lankidetzaren eta elkartasunaren arloko laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko arau bereziei buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

Primero: Iniciar el procedimiento de elaboración del proyecto de decreto sobre las normas especiales aplicables a las ayudas y subvenciones de cooperación y solidaridad.

Bigarrena: Dekretu hau “Legegunea” lankidetza-gunean ezagutaraztea, Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz —ebazpen horren bidez, xedapen arauemaile orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen erabakia argitaratzeko agintzen da—, bai eta iragarki-taulan ere, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Segundo: Dar a conocer en el espacio colaborativo “Legegunea” el presente Decreto, de conformidad con lo dispuesto en la Resolución 54/2025, de 20 de mayo, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General y en el tablón de anuncios de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General

Hirugarrena: Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkoak diren azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Tercero: Efectuar los estudios, informes y consultas que sean precisos para la elaboración de la norma y para garantizar su acierto y legalidad.

Laugarrena: Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz —ebazpen horren bidez, xedapen arauemaile orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen erabakia argitaratzeko agintzen da—, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera.

Cuarto: Utilizar el modelo de tramitación de las Disposiciones de carácter general y la aplicación informática Tramitagune, de conformidad con lo dispuesto en la Resolución 54/2025, de 20 de mayo, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Bosgarrena: Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia modu aktiboan argitaratzea, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Quinto: Proceder a la publicación activa de toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento, conforme a lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, así como en Ley 3/2026, de 14 de mayo, de Transparencia de Euskadi.

Gasteizen emana, 2026(e)ko azaroaren 3(e)an.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2026

LEHENDAKARIA

IMANOL PRADALES GIL.

EL LEHENDAKARI,

IMANOL PRADALES GIL.